

## Jan eta edan, ardura barik

**BERRIATUKO AZOKEA.** San Gregorioen barruan, baserri eta arrain kontserba azokea izan zan atzo

Lore Bengoetxea

**N**on eta Berriatun. Hasi-  
siera baten, behintzat,  
arraroa egiten da  
arrain kontserba azokea barru-  
ko herri baten antolatzea, baina  
Lea-Artibaiko Amankomunaz-  
goak bere arrazoiak ditu: Onda-  
rroako fabrika gehienak bertan  
dagoz. Hirugarrenez, bertan  
batu dira kontserbagile eta  
arrain zale gehienak.

*Kaxero gaupasero* deitzen  
deutsie Berriatun atzoko egu-  
nari. Izan be, bariku gaueko  
rock kontzertuak atxakia ederra  
emoten deutsie gorputza or-  
duak eta orduak tente egotera  
behartzeko. «Bestelan be, jaie-  
tan gagoz, eta pekatua litzateke  
egitarauak emoten dauen auke-  
ra txikienari ezetz esatea», esan  
eban atzo gazte batek, lo faltan  
egoala ezin disimilaturik. Ez zan  
plaza bueltan oheari muzin  
eginda haruntz eta honuntz pin-  
txoen atzetik ebilen bakarra.

Beste batzuk, nahiago izan  
eban bezperan goiz erretirau  
eta azokara fresko-fresko ager-  
tu. «Nik, badaezpada, ez dot  
gehiegi be gosaldu», adierazo  
eban pintxoari dzapart egiteko  
prest egoan batek. Amankomu-  
nazgoak hartutako sukaldari  
biek 2.000 pintxo prestatu zi-  
tuen, zein baino zein itxura ede-  
rragokoak. Batzuk besteek bai-  
no arrakasta handiagoa baeu-  
ken be, inor ez zan gelditu jabe  
barik.

### Zerbitzari zereginetan

Tripakada ederra egin eban ba-  
tzuk azokearen kontura. Bien

bitartean, herritar talde batek  
zerbitzari beharrak egiten eba-  
zan. Udaletxe atzean presta-  
tzen zituen pintxoak plazara  
eroaten zituen, ahal eban ari-  
nen, jentearen jateko amorruari  
erantzun nahian. Hori bai: pin-  
txo bat edo beste be jaten eban,  
bidean. Inork ez eutsien horre-  
tarako eskubidea ukatuko.

Merke eta ondo jan ahal izan  
eban atzo Berriatura joandako-  
ek. Izan be, sarrerako postuan,  
sagardaoa edateko edalontziak  
eskaintzen zituen 2,5 euroan,  
eta atun pintxoak jateko tiketak  
1,5 euroan. Tike bakotxagaz  
pintxo bi eskuratu eitekezan:  
bat olioduna eta bestea eskabe-  
txeduna.

Jatekoari be sakadea egin be-  
har, lantzean behin. «Erositako  
edalontziagaz, azokan dagozan  
sagardao guztiak probau ahal  
ditue, neurri barik», esan eban  
antolatzaileek. Holako konbite-  
aren aurrean edan barik geldi-  
tzea itsusia izango zalakoan-  
edo, ia hustu be egin eban ba-  
tzuk sagardaoa.

Egun hau salmenta zuzena  
eta baserriko produktuak bul-  
tatzeko Lea-Artibai Amanko-  
munazgoak antolatzen dauen  
egitarauan sartzen da. Kontser-  
bek be tartea eukiten dabe urte-  
ko egitarauan. «Orokorrean,  
kontserba egileek zein bezero-  
ek ekitaldi honeen balantze ona  
egiten dabe», nabarmendu  
eban. Fabrikeri esker, azokea  
uste baino merkeago antolatu  
ahal izaten dabe. Generoa doan  
emoten deutsienez, 5.000 euro-  
gaz nahiko dabe (900.000 peze-  
ta).



NEKANE AKARREGI

**KONTSERBAK.** Berriatuko azokan kontserbak dira protagonistetako batzuk.




NEKANE AKARREGI

**GOGOR BEHARREAN.** Atun eta antxoak pintxoek jente ugari ekarri eban.

### PINTXOAK, ARRAKASTATSU

## Bazkari legea egin eta jaiez gozetan jarraitzeko erea

«Pintxoek onarpen handia daukie jentearen artean», esan eban Lea-Artibai Amankomunazgoko lehen-  
dakari Pedro Agustin Juaristik. Berriatuko alkate Rodol-  
fo Bakerizak dinoanez, espa-  
rrago eta piper latak be asko  
saltzen dira. 15:00ak arte  
egon ziran atzo azokako ate-  
ak zabalik. Horren ostean,  
ogi eta gozoak erosi eta etxe-  
rako bidea hartu eban ba-  
tzuk. Beste batzuk, bazkari  
legea eginda eukiela erabagi,  
eta jaiagaz jarraitzeko asmoa  
agertu eban. Danak barriro  
gaur alkartuko dira, zelan ez,  
jatekoaren atxakian. Tortilla  
eta paella lehiaketeta daukie,  
eta gero, ataraten danari he-  
rri bazkarian emongo deu-  
tsie puntuazinoa.



**Gure  
artean  
euskeraz**

Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura